ytantos Liburu hau inprimatu eta banatzea aleko 1,004 € kostatu da. Guztira 5.000 ale (5020 € + BEZ)

Antolatzaileak

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

18 20 13 Donostia eraikitzen
Construyendo San Sebastián

CASA DE LA PAZ Y LOS DERECHOS HUMANOS SAN SEBASTIÁN
AIETE
BAKEAREN ETA GIZAESKUBIDEEN ETXEA DONOSTIA

EUSKARAREN HIRIA DONOSTIA

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

donostiakultura.com

Babesleak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Derechos Humanos y Memoria Histórica

2013 Bazen behin...

Garazi Etxaniz
9 urte

2013

Bazen behin...

Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen Margolanen IX. ekitaldia

Donostiako Eskolarteko XXIV. Literatur Lehiaketa. Koldo Mitxelena Saria

2013
PAKEA
1813
2013
FELIZ 200 ANIVERSARIO

Bazen behin...

Aurkezpena

Poz bereziz aurkezten dizuet esku artean duzuen liburuxka hau; Bazen Behin liburuxkaren zortzigarren argitalpena. Idazlanak, bertsoak, olerkiak, komikiak eta marrazkiak tartekatzen dira aurreneko aldiz edizio honetan, eta gehienek, gure hiriarentzat oso berezia izan zen urtea izan dute ardatz. Donostia erre eta suntsitu zutela 200 urte betetzen dira aurten, eta urte osoan zehar, hainbat ekitaldi eta mugarriren bidez, urte latz hura gogoratzen ari gara. 1813ko urte hura, baina, ez zen dena iluna eta beltza izan, izan ere, egoera anker horretan, gure arbasoek hiria berreraikitzeko kemena izan zuten. Horixe da aurten etengabe zabaldu nahi dugun mezua. Une mingarri batean, garai hartako donostiarrek erabaki irmo eta sendoa hartu zuten, gure hiria berriro eraiki zuten, ziudade bizi bat zutituz. Belaunaldi berriek horren ezagutza izatea inportantea da, eta ekimen hau aukera ezin ederragoa da helburu horretan. Lehiaketa honen bidez, gertatutakoaren ezagutzan murgildu zarete, eta irudimena abian jarriz, testu eta irudi apartak sortu dituzue. Benetan zorionak!

Donostiako Eskolarteko Koldo Mitxelena Literatur saria eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen Margolanen lehiaketa, beraz, elkarlanean aritu dira, eta argitalpen honetan bi modalitate horietako lan adierazgarrienen bilduma jaso dugu, elkarlan horren guztiaren ikur, duela 200 urteko gertakari haiek ezagutzera eman eta omentzeko helburuarekin. Bi ekimen hauek sormena garatzea baino helburu gehiago dituzte: elkartasuna, errespetua, lankidetza eta aurrera egiteko balioei buruz hausnarketa egitea batetik, eta euskararen erabilera sustatzea bestetik, haur eta gazteek euskaraz idazteko eta irakurtzeko ohitura txikitatik izan dezaten.

Epaimahaiarentzat ez da lan erraza izan, jaso diren 5.000 lan baino gehiago horietatik, marrazki, ipuin, olerki, bertso, komiki hoberenak aukeratzea, liburuxka honen mugetara egokitzeko, baina hemen duzue emaitza. Espero dut zuen gustukoa izatea eta, aldi berean, gogoeta egin eta elkar ulertzeko ere lagungarri izatea, hemendik beste 200 urtera ere, etorkizuneko gazteek zuek egindako lana eta adierazitako ideien edukia eta esanahia beregana dezaten. Gure historia belaunaldiz belaunaldi josten dugu guztion artean, eta esku artean dugun bilduma hau horren lekuko ezin hobea izan daiteke. Mila esker guztioi.

Juan Karlos Izagirre
Donostiako Alkatea

Giza Eskubideak
Margolanen IX. ekitaldia

XXIV. Literatur Lehiaketa
Koldo Mitxelena

...
Aurkibidea

Margolanen 6-8 urteko kategoria 10
Literatur Lehiaketaren LH Lehen zikloa (6-8 urte)

"Horra zer den gure Donostia" murala 11
"Arrantza Donostian" komikia 12
"Gizona eta marrazoa" komikia 13
"La quema" marrazkia 14
"Donostia koloretan" murala 16

Margolanen 9-12 urteko kategoria 18
Literatur Lehiaketaren LH Bigarren zikloa (8-10 urte) eta LH Hirugarren zikloa (10-12 urte)

"Bi lagun" ipuina 19
"Izar lana" komikia 21
"Erraustetatik berpiztuz" murala 22
"Nire Bizitza" bertsoa 24
"Hostoa" olerkia 25
"Titulorik gabe" marrazkia 26
"Atlantida, herri galdu baten kondaira" ipuina 29
"Eraikiz" murala 32
"Auskola" komikia 34
"Laguntzarekin dena lortu ahal da" marrazkia 36

Margolanen 13-16 urteko kategoria 38
Literatur Lehiaketaren DBH Lehen zikloa (12-14 urte) eta DBH Bigarren zikloa (14-16 urte)

"Bizitza" bertsoa 39
"1813, Donostia sutan" murala 40
"Etxe atzeko zuhaitza" ipuina 42
"Gracias a su esfuerzo" marrazkia 46
"Ametsa" komikia 48
"Gauak besarkatzen duen tokiraino eraman nazazu" olerkia 50
"Goizeder" ipuina 52
"Donostiako Puzzlea" murala 58
"Elurra" olerkia 60
"Duelo 200 urte" komikia 61

Literatur Lehiaketaren LOGSE Batxilergoa eta Lanbide-Heziketa (16-18 urte) 62

"Ikastolako gogoetak" bertsoa 63
"Telefonoaz bestalde" ipuina 68
"Lurrunpeko iraultza" olerkia 74

Donostia 2013 saria
"Nire istorioa" ipuina 76

Giza Eskubideak
Margolanen IX. ekitaldia
6-8 urteko kategoria

...

XXIV. Literatur Lehiaketa
Koldo Mitxelena
LH Lehen zikloa (6-8 urte)

...
"Horra zer den gure Donostia" - Amarako Haurtxokoa
Bikendi Arregi Garcia (8 urte); Jaione Torquemada, Asier Echevarria Lopez de Mendiguren, Jon Zubimendi Lekunberri, Xabat Goenaga Inza, Ane Miguel Louzao, Maite Heras Sanchez, Adur Belloso Marques (6 urte).
...

Arrantza Donostian

...
Lukas Pagola Uriarte
7 urte
Zuhaizti eskola publikoa
...

Gizona eta marrazoa



...
Uxue Barandiaran Rodriguez
7 urte
Zuhaizti eskola publikoa
...

...
"La quema" - Gautena
Felix Sousa
7 urte
...

...

"Donostia koloretan" Intxaurrondoko Haurtxokoa

Eneko Arias Mateo, Ibai Cuadrado Vela, Olaia Villa Calleja, Argoitz Loyarte Allardo, Xabi Allaflor Ugalde, Markel Pastor Gil, Enaitz Erdozain Batllori (5 urte); Adrian Hipolito Lozano, Beñat Susperregi De Lucas, Gorka Aguado Ojeda, Marina Pazos Hermo, Ander Alvarez Garcia, Iker Aguado Alonso (6 urte); Iraia Erdozain Batllori (7 urte); Ainara Villa Calleja (10 urte); Joane Barreiro Campo, Hodei Reis Botran, Ane Allaflor Ugalde (11 urte).

...

Giza Eskubideak
Margolanen IX. ekitaldia
9-12 urteko kategoria

...

XXIV. Literatur Lehiaketa
Koldo Mitxelena
LH Bigarren zikloa (8-10 urte) -
LH Hirugarren zikloa (10-12 urte)

...
Ipuina

Bi lagun

Udako egun eguzkitsu batean ezagutu ziren Iker eta Brahim, 12 urte zituzten biak. Oso desberdinak ziren. Ikerrek azala txuri-txuria zuen eta begiak aldiz urdin-urdinak. Oso berritsua eta alaia zen. Euskaraz bakarrik hitz egiten zuen eta gaztelerako batzuk ere geroz eta hobeto menperatzen zituen.

Brahim aldiz, beltzarana zen eta begi beltz-beltzak zituen, hau ere oso berritsua zen eta ez zitzaion batere kostatzen harreman berriak egitea. Arabiarrez hitz egiten zuen eta gazteleraz ere hitz batzuk bereizten zituen. "Sahararra" zen Brahim, Iker aldiz "donostiarra".

Donostiako Gros auzoko Zurriola hondartzan zeuden biak goiz batean, oraindik ez zuten bi mutilek elkar ezagutzen eta Brahim uretara sartu zen, baina, ez zen konturatu zeuden olatuak oso handiak zirela eta bat-batean, haietako olatu handi batek lurrera bota eta itsasoak irentsi egin zuen barneruntz. Momentu batean Brahimen hankak bakarrik ikusten ziren, birak ematen ari baitzen, ezin zuen kanpora atera. Iker konturatu zen gertatzen ari zenaz eta igerian hasi zen Brahim salbatzeko asmoz, ziztu bizian. Iker ohituta zegoen igeri egiten, txiki-txikitatik igeriketa ikastaro asko egiten baitzituen bere auzoko kiroldegian. Brahim lepotik hartu zuen Ikerrek poliki-poliki eta lehorreruntz eraman zuen eta sorosleei laguntza eskatu zien.Ur pixka bat tragatu zuen,baina berehala errekuperatu zen. Iker han egon zen eskua emanda denbora guztian berari laguntzen. Sorosleek Iker zoriondu zuten eta berari esker susto bat besterik ez zela izan esan zioten.

Gertaera hura pasa zenetik, Iker eta Brahim lagun handiak egin ziren.Toki guztietara elkarrekin joaten ziren eta Ikerrek Euskal Herriko toki batzuk erakutsi zizkion Brahimi. Donostiako txoko interesgarri askotara ere gonbidatu zuen bere laguna.Bertako auzoak, auzoak dituzten ezaugarriak, parkeak, euskaldunen ohiturak, festak, eta abar luze bat. Brahim harrituta zegoen eta momentu guztietaz disfrutatzen zuen. Euskarazko hitz batzuk ere erakutsi zizkion Ikerrek.

Udara amaitu zen eta Brahim Saharara bueltatzeko ordua iritsi zen. Joan aurretik ordea gauza bat eskatu zion bere lagunari, ahal zuenean bere etxera joateko esan zion, bere familia aurkezteko gogo handia zuela eta.

...

Ipuina

Negua iritsi zenean Tinduf hiriko aireportura iritsi zen Iker. Abendua zen eta haize pixka bat bazebilen eta hau hotza zen. Hegazkinetik jaitsi eta hasiera batean pixka bat izutu egin zen. Bere inguruan ikusten zuen jendea, batez ere emakumeak, goitik behera oihal batez estalita zeuden baina beraien aurpegietan erreparatu eta gero lasaitu egin zen Iker, irribarre handi bat ikusten baitzien beraien aurpegietan.

Kamioneta zahar bat zegoen Ikerren zain. Barruan, beste hamar bat pertsona zeuden eta auzo desberdinetara zihoazen. Ordu erdi bat pasa zen eta egia esan, Donostiako autobusekin konparatuta kamioneta hura oso zakar ibiltzen zen hondar tontor haietatik.

Bat-batean, urrutira eskuak altxatuaz mutil bat ikusi zuen Ikerrek. Bera zen bai, Brahim, bere laguna. Kamionetatik jaitsi eta izugarrizko besarkada eman zioten elkarri bi lagunek. Brahimek bere familia osoa aurkeztu zion harrotasun handiz, bere gurasoak eta bost anai-arreba zituen. Ama, estalita zihoan eta baita aita ere, oihalak kolore desberdinetakoak ziren. Asko poztu ziren bere semearen lagunaren bisitarekin. Brahimek Saharako bazterrak erakutsi zizkion eta beraien bizitzeko modua ere bai. Etxeak, hondarrez eginak ziren eta komunik ez zuten, ura oso gutxi baitzuten eta ura lortzeko esfortzu handia egin behar baitzuten eta ondo banatu eta ur tanta guztiak ondo aprobetxatu behar ziren. Etxeen ondoan, guk mendira eramaten ditugun kanping-denden antzeko batzuk zeuden baina tamaina handikoak. Brahimek esplikatu zion Ikerri beraiek egunean zazpi aldiz errezatzen zutela eta toki horiek horretarako erabiltzen zituztela, beraien Jainkoari otoitz egiteko, alegia.

Han ez zegoen parkerik, ez itsasorik, ez izozkirik, ez luxuzko jostailurik eta ezta goxoki gehiegirik ere, baina gauza txikienarekin ere jolastu egiten zuten eta oso zoriontsu bizi zen jende hura eta gainera oso eskuzabalak ziren, zeukaten guztia konpartitzeko prest zeuden Ikerrekin.

Ikerrek, Saharako bidaia hori egin zuenetik, galdera bat egiten zion bere buruari:

Hainbeste gauza material behar al dugu zoriontsu bizitzeko?????

...
Arantxa Manterola Aramendi
9 urte
Jakintza ikastola
...

...

Komikia

Izar lana



...
Maider Rua Gual
9 urte
Herri Ametsa ikastola
...

...

"Errautsetatik berpiztuz" - Martuteneko Haurtxokoa

Nahia Etxabe Borobia (5 urte); Axel Hernandez Cañas (6 urte); Eider Fernandez Berganzos, Maddi Jimenez Monsalvo, Usoa Aragon Iturriaga, Paula Aragon Iturriaga (9 urte); Irati Rajado Grajal (11 urte).

...

Nire Bizitza

1.-
Begi marroixkak ditut
eta izena Jon
ez okurrittu gero
deitzea txipiron.
Bertso kontutan eskas,
futbolen kanpeon,
sorta hasi dugunez
kaixo ta egunon.

2.-
Jaio ta bizi Hernanin
Ikasi Donostin;
ederki pasatzen dut
gelakideekin.
Hernanin axeri ta
Donostin kaxkarin,
Santo Tomasen berriz
beti txistorrakin!!!

3.-
Ezin dut aukeratu
Hernani-Donosti:
hondartza Donostian,
Hernanin bost mendi.
Reala futbolean
Hernanin errugbi
ez naiz ni gero hasiko
"gora Real Madril"!!!

4.-
Sorta hau amaitzeko
lagunei goraintzi:
Unai oso jatorra,
Mikel kirolari,
Igor bihurri samar,
Pablo musikari,
Aitor zintzo-zintzoa
eta Beñat Messi!!!

...
Jon Auzmendi Del Valle de Lersundi
11 urte
Santo Tomas lizeoa
...

Hostoa

Faltan botatzen ditut
zure gabonetako dantzak

Faltan botatzen ditut
zure urrezko marrak

Faltan botatzen ditut
zure kolore zurizko pelukak

Faltan botatzen ditut
zure negar galantak

Faltan botatzen ditut
zure behe lainoak

Faltan botatzen ditut
zure arratsalde koloretsuak

Faltan botatzen ditut
zure egun distiratsuak

Lurrean ezkutatua, estalita eta
islatua
dagoen hosto zapaldua

Faltan botatzen.
hainbeste gauza,
eguzkiaren distirak,
lainoen negarrak
arratsaldeak...

zapala eta zimurtua
oso triste eta bakarrik
marroi kolorezko hosto zikin
bat naiz ni.

Nire bizitza bukatu da
eta nere bizkarra krik eta krak
aurpegia malkoz beteta ting
eta tang

ni zuhaitzetik zintzilik
soineko dotorez jantzita

ni lurrean zapalik
egun distiratsuak horiek
ahaztuta

Faltan botatzen dut...

...
Maria Etxeberria Izutegi
10 urte
Zurriola ikastola
...



...
Nuestra Señora de Aranzazu ikastetxea (Jesusen alabak)
Adriana Arana
10 urte
...

Atlantida, herri galdu baten kondaira

Kaixo! Mezu hau irakurtzen duten guztiei zera esan nahi diet: ez saiatzeko ni aurkitzen. Ezinezkoa baita. Tira, ni nor naizen esango dizuet orain. Nire izena James Wilson da, eta orain Atlantidan bizi naiz. Bai, bai. Atlantidan!

Nola iritsi nintzen hara azaltzea ez da erraza izango, baina ez da ezinezkoa. Beraz, oraintxe azalduko dizuet.

1939ko azaroak 10. Bigarren mundu gerra hasi berria zen, eta ni beste pertsona asko bezala Hego Ameriketara bidaiatzea erabaki nuen. Lanbidez mekanikaria nintzen, baina nire denbora librean idaztea asko gustatzen zitzaidan, eta zait! Nik idatzitako istoriorik onena: "Galdutako hiriaren kondaira" zuen izenburua. Ingalaterran bizi nintzen. Herritarrok ebakuatzeko plan bat jarraitzen ari ginen. Plana zera zen: guk portuan itxarotea Hego Ameriketara eramango gintuen itsasontzia. Niri, zorionez, lehenengoetakoa suertatu zitzaidan. Bidaian, Garcia kapitain mexikarrak (Mexikora baikindoazen) gertu geundela esan zigun eta segituan iritsiko ginela ere bai. Hori esan zigun bitartean ni, nire "Herri galduaren kondaira" irakurtzen ari nintzen. Hirugarren kapituluan jartzen zuen: "...bat-batean tsunami bat sortu da eta itsasontzia ur sakon eta ilunen zurrunbiloan sartzen ari da...". "Hasiera politta" esan nuen nere baitan.

Orduan gizon bat kapitainarengana joan zen korrika eta hau esan zion larrituta:

- Kapitaina! Olatu izugarri bat guregana hurbiltzen ari da!

Kapitaina kontrol gelara joan zen, baina beranduegi. Ordurako olatu hark bete-betean harrapatu gintuen.

Nik ezin nuen sinetsi. Nire istorioa egia bihurtu zen! Olatuak jo eta pixka batera itsasontzia hondoratzen hasi zen! Baina modu ulertezin batean: olatuek ez baitziguten zulorik egin! Harrigarria benetan. Bat-batean argi bat agertu eta denok itsutu gintuen, nire istorioan bezala! Konortea berreskuratu nuenean itsu nengoen baina haizeak begietan jo ninduenean, begirada berreskuratu eta itsasontzia hutsune batera

erortzen ari zela konturatu nintzen. Bat-batean golpe handi bat entzun eta zerbaiten aurka jo genuen. Itsasontzia txikitu egin zen. Ni zaurituta nengoen, itsasontziaren hondakinen artetik arrastaka atera eta lurralde ezezagun batean aurkitu nintzen: Grezia Zaharreko etxeen eta tenpluen oso antzekoa baina zikin eta ustela. Non nengoen jakin nahian, herri hartatik ibiltzen hasi nintzen. Pasatu nintzen kaleetan harrizko etxe eta eskulturak ikusi nituen. Halako batean, kaleko bitxikeriei arreta gehiegi emanda edo, bidetik atera eta zelai antzeko larre batera iritsi nintzen.

Larreak ez zuen ezer berezirik. Hori uste nuen neure eskuinera begiratu eta hegazkin baten hondakinak ikusi nituen arte. Korrika abiatu nintzen hegazkinaren hondakinetara. Bertara iristean, hegazkinaren barruan (eta kanpoaldean) usteltzen ari ziren hainbat gorpu ikusi nituen. Denak hilda, noski.

Hegazkinaren barruan erabilgarria suertatuko zitzaidan zerbaiten bila hasi nintzenean, ez nuen ezer berezirik aurkitu. Itsasontzia zegoen lekura bueltatzeko zorian nengoela, gertaera izugarria gertatu zen. Norbaitek sorbalda ukitu zidan!

- Aaaaaaaa!!!!!!!!!!!!!!- Bai, "Aaaaaaaaa!!!!!!!" luze batez erreakzionatu nuen eskua sentitu nuenean.

- Lasai gazte. Ni ere zu bezalako gizaki bat naiz eta zu iritsi zaren bezala iritsi nintzen honaino.

- Non dago hemengo jendea? Zu eta ni bakarrik gaude hemen?

- Zoritxarrez, baietz uste dut- Hori esatean, konturatu nintzen gizon harrek denbora asko zeramala hemen eta jadanik ezinezkoa izango zela handik ateratzea.

Beraz, zergatik ez lagundu?

Orduan, zera galdetu nion: - Non dago jendea?

- Tira, istorio luzea da baina hemen aurkitu nituen idatzi batzuetan, orain dela 1000 urte lurralde hauetan bizi zen deabrua, ezagutzen ez ditudan arrazoi batzuengatik, haserretu egin zen eta herritar guztiak urrezko ontzi batean gorde zituen.

- Non dago ontzi hori? - Galdetu nion kezkaturik.

Berak eskuarekin laku bat seinalatu zuen. Eta nik orduan, herritarrak ontzi horretatik aterako nituela agindu nion. Eta haruntz abiatu nintzen.

Lakuaren ertzera inguratu nintzenean txabola bat aurkitu nuen. Bertan, nik behar nuen materiala zegoen: soka bat eta lantza moduko makila bat.

Gauza horiek hartu eta gero, birikak airez ondo bete eta lakuko ur epeletara jauzi egin nuen. Baina arazoak berehala azaldu ziren: hiru marrazo nituen neure begien aurrean. Lehenengo eraso zidanari lantzarekin zauritu eta ihes egin zuen. Bigarrenari ordea, sabelean eman nion eta seko utzi nuen. Hirugarrena ez zen ni erasotzen ausartu gertatutakoa ikusi ondoren. Kontuak kontu urrezko ontzia aurkitu nuen eta segituan igo nuen ur azalera.

Lurrean potoa ireki eta jendea nola agertzen zen ikusi nuen. Bertakoak, ikusten zenez, nirekin zorretan zeuden egin nuenagatik. Dena konpondu zela uste genuenean, amorratutako espektro erraldoi bat agertu zen.

Herritarrak ontzitik ateratzeagatik, denok hil behar gintuela zirudien, baina ez nengoen bakarrik. Jendea borrokatzeko prest zegoen eta deabrua eraso genuen. Borroka luze baten ondoren, mamu hura garaitu eta betirako desagerraraztea lortu genuen. Ni herri hartan gelditu nintzen bertako biztanleekin. Non nengoen galdetu nuenean Atlantidan geundela erantzun zidaten denek aho batez. Bai, liburu batetik ateratako istorioa ematen du baina ez.

Mezu hau irakurtzen duzuenerako ni hilda egongo naiz baina zuek denok ezagutuko duzue Atlantidaren historia.

...
Joseba Goiburu De Pedro
11 urte
Intxaurrondo ikastola
...



...

"Eraikiz" - CEP Intxaurrondo Ikastola LHI

Yago Martin-Fontecha Saborido, Urtzi Paskual Gilabert, Ekain Oiarbide Apodaca, Arrate Fernandez Nava, Oihane Ibarzabal, Alaitz Alonso Garcia, Julen Caceres Iturbe, Uxue Caulonga Fabeiro, Ainhize Bengoetxea Guembe, Anartz Ormazabal Rodriguez, Iraia Lasa Cuevas, Ander Alejandro Fernandez, Lucia Acera Paulis, Gorka Acuña Perez, Maria Rodriguez Merino, Jon Hernandez Ibarzabal, Maialen Antin Gutierrez, Pakito Gimenez, Patxi Legaz Arregui, Iker Telleria Gonzalez, Julen Sanchez Nuin, Miren Amaiur Torra Perez (10 urte); Paula Quintana Caballero, Davlat Mikel Goes Apeztegui, Jon Otegui Aranburu,Yanira Berrio (11 urte).

...

...
Jon Ander Alonso Ortiz de Elguea. *11 urte. San Luis-La Salle ikastetxea. "Auskola"*
...

...
"Laguntzarekin dena lortu ahal da"
Santa Teresa ikastetxea
Leyla Calvo
12 urte
...

Giza Eskubideak
Margolanen IX. ekitaldia
13-16 urteko kategoria

...

XXIV. Literatur Lehiaketa
Koldo Mitxelena
DBH Lehen zikloa (12-14 urte) - DBH Bigarren zikloa (14-16 urte)

...

Bertsoa

Bizitza

1.-
Azken aldian mundu guztia
da edozergatik kexu
dirudienez beraiek dute
euren bizitzen konplexu
kexaren bat entzuten baduzu
hauxe galde iezaiozu
okerrago dagon jendeagan
inoiz pentsatu al dezu?

2.-
Horren inguruan nahi nituzke
gauza pare bat nik jakin
gaur egungo umeak ez dira
asetzen edozerrekin
Play station, Wii eta X-box
ez al dute nahiko horrekin?
beste batzuk konformatzen dira
maitasun apur batekin.

3.-
Afrikan bizi diren umeak
pasatzen duten gosea
zein polita den denak batera
jolastutzen ikustea
harrigarria iruditzen zait
haiek duten bertutea
ezer ez duen zulo batetik
esperantzarik lortzea.

4.-
Azken aldian Siria aldean
gertatzen diren protestak
zoritxarrez ikusi ditugu
bonba eta eskopetak
guraso gabe gelditu diren
umetxo horiek denak
orain nora ezean dabiltza
ezin ahaztu euren penak.

5.-
Jende gehienak ez daki ondo
zer den aberastasuna
aberastasuna da erosi
ezin den alaitasuna
alde batean utzi behar da
bizitzaren zama astuna
eta bakoitzak egin dezala
benetan gustoko duna.

6.-
Hau guztia ikusi ondoren
hausnarketa egin zazu
zure ustez kexatzen hasteko
motiborik ba al daukazu
ezin duenari pixkatxo bat
lagundu iezaiozu
eta pertsona horrek seguru
noizbait eskertuko dizu.

...
Asier Ibarguren Amondarain
13 urte
Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI ikastetxea
...



...
"1813, Donostia sutan" - Aieteko Gaztelekua
Maier Aguirre Lasa, Maria Jaunarena Gallurralde (12 urte); Eduardo Perales Fernandez, Iker Perez Gonzalez (13 urte); Gonzalo Lavado Gallego (15 urte).
...

Etxe atzeko zuhaitza

Zer kontatuko diguzu gaur aitona?

- Ikus dezagun... Nire istorio guztiak kontatu dizkizuet jada!

Falta ziren hiru umeak sutondoan esertzen hasi ziren,

- Aitona, aitona, kontatu istorioren bat!- eskatu zidan txikienak.

- Gogoratuko zara zerbaitez, ezta? - galdetu zidan Irinak atetik. Gelara sartu zen, eta aspaldiko partez bere lehengusu eta neba-arrebekin eseri zen sutondoan. Haren begiak ikusi nituen, niri begira-begira, eta aspaldiko lagun bat gogoratu nuen.

- Gaur zuk ere entzun behar duzu istorioa?

Neskari, txikitan, asko gustatzen zitzaizkion istorioak, baina aspaldian ez zuen bat entzun.

- Zergatik ez? Ez dut beste ezer egiteko.

- Ongi, orduan istorio berezi bat kontatuko dizuet...

Zein kontatu pentsatzen ari nintzela, berriro etorri zitzaidan burura aspaldiko lagun hura, ezin ahaztu izango nuen laguna.

- Lagun bat dut gogoan, zure antza handia zuen, eta hari pasatakoa kontatuko dizuet, ondo iruditzen?

- Bai, bai, baina ni bostetan banoa.

Baietz egin nion buruaz, eta hain mingarri zitzaizkidan oroitzapenak kontatzeko gertu nintzela erabaki nuen:

"Bada... Irinaren adina nuen, 15 urte, eta herri honetan bizi nintzen familiarekin. Nire bizitzaz ez nintzen kexatzen, jatekoa nuen, etxe bat... Gurasoek lan handia egin zuten familia aurrera ateratzeko.

Nire lagun hoberena neska bat zen, ile beltza, begi berdeak eta azal zuria zituen. Berarekin pasatzen nituen arratsaldeak, etxetik ateratzea lortzen nuenean. Ondo ezagutzen ginen, eta elkar babesten genuen.

Uda zen, eta bero handia egiten zuen. Arratsalde hartan, beste guztietan bezala, plazan elkartu ginen. Bera berandu samar iritsi zen, beroki lodi eta handi batekin. Korrika, besotik heldu eta elkarrekin eraiki genuen txabolara eraman ninduen. Barruan geundenean erlaxatu zen.

- Ei! Zer egiten dun beroki horrekin? Eta zergatik ekarri naun hona?- galdetu nion arnasa ezin hartu.

- Ez iezadak garrasi egin, aditu! Ez nagok umorez eta...

- Ongi, ongi... badakin haserretzen haizenean beldurra ematen didanala?- eskua altxa, eta jo egin zidan.

- Autx! Jajajaja! Lasaitu hadi... eta esan iezadan zer gertatzen den.

Erantzun gisa, bizkarra eman zidan, berokia kendu eta kamiseta altxa zuen. Landare bat ikusi nion bizkarretik gora. Gaztainondo hostoak ateratzen zitzaizkion gerritik! Hurbildu, eta ukitu egin nituen.

- Nola lortu dun...- tira egin nien.

- Ai! Zertan ari haiz! Itsatsita zeudek! Horrela esnatu nauk, nire gorputzaren parte izango balira bezala duk...

- Orduan ...adarrek sentitzen dutena... hik ere sentitzen dun?- galdetu nion harrituta.

- Bai! Ez izan lerdoa, eta lagundu iezadak! Zer egin behar diat nik orain?

Zuhaitz ibiltaria nauk!

- Norbaiti galdetu beharko...

- Ez! -begira-begira nuen- Mesedez, inori ez kontatu hau...

Momentu hartan, adarrak mugitzen hasi ziren eta sorbalden gainetik, bularra tapatzen hasi ziren.

- Goazen lakura.

Etxe honen atzeko basotxora joan ginen. Ez da oso handia, baina bertan dagoen lakua freskagarria da udan.

Iristen ari ginela, hostoek besoak inguratu zizkioten, azkar-azkar. Tripa ere estalia zeukan, eta hankak laster egongo ziren inguratuta.

Lakuan ginela, ertzean belaunikatu ginen, ura edatera. Neskak eskuak uretan sartu zituenean, ura argitu egin zen momentu batez, eta zerbait idatzita agertu zen uretan"

- Irina, bostak dira.

- Hemen geratuko naiz ama -erantzun zion neskak, istorioak harrapatu egin zuen- itxi atea.

- Jarraituko dut? -galdetu nuen.

- Bai, mesedez.

"Nioen bezala... zera jartzen zuen: BOTA ARAZOA, ETA ESANGO DIZUT JAKIN BEHARREKOA.

Pentsatu gabe kendu nion lagunari hosto bat, eta uretara bota nuen.

- Autx! Zertan ari... -bat-batean, ura mugitzen hasi zen.

Emakume bat agertu zen, zurbil, izerditan, hilzorian bezala, gizon batek besoetan zeramala. Gaztainondo batean gelditu zen, eta ebaki bat egin zion enborrari; ura ateratzen hasi zen, eta emakumeak zuhaitzaren ura edan zuen. Nire lagunaren antz handia zuela ikusi ahal izan nuen, eta bat-batean, haur negarti bat ikusi zen uretan, emakumearen besoetan. Gero, zuhaitz genealogiko handi baten irudia, goian; gizonaren

eta emakumearen argazkiak zeuden, beste pertsona batzuen irudiak segidan. Zuhaitz genealogikoaren gainean, gaztaina hostoz inguratutako bihotz baten marrazkia.

Irudiak desagertu, eta ura berriz itzuli zen normaltasunera.

- Baina... zer esan nahi dik horrekin?

- Ez al dun ulertzen? Hi haiz prezioa! Emakumearen ondorengoa, haren bizitzagatik ordaindu beharrekoak!

- Ez... ezin nauk... ez duk esan nahi...

Altxa egin zen, eta bere atzetik eguzkia sartzen ikusi nuen. Basoa eta lakuaren artean gelditu zen. Gero eta gogorrago bildu zitzaizkion hankak; enbor bihurtzen hasi ziren. Hostoak lepotik gora igo zitzaizkion. Zuhaitz bihurtzen ari zen, baina haren begiek niri begira jarraitzen zuten. Nire ezintasunean, gauza bat esatea bakarrik otu zitzaidan:

- Maite haut!

Eta ez dakit entzun ninduen, baina betiko galdu nuen."

- Merienda prest!

Ume guztiak korrika joan ziren, Irina izan ezik. Momentu batean, begira egon zitzaidan, eta, gero, poliki-poliki altxa eta alde egin zuen.

Batzuetan ikusten dut oraindik zuhaitzaren itzaletan zerbait irakurtzen, eta nik jarraitzen dut ene zuhaitz maitea bisitatzen, eta nire kontu guztiak hari kontatzen.

...
Itziar Lamarka Arrizabalaga
13 urte
Zurriola ikastola
...

...
"Gracias a su esfuerzo" - Margotu Juncal Aguirre Andres Romeo
13 urte
...



...
Lorea Lopez Ederra. *13 urte. Santo Tomas lizeoa. "Ametsa"*
...

...
Olerkia

Gauak besarkatzen duen tokiraino eraman nazazu

Nor naiz orain?
bukaeratik hasita,
zergatik ni?
hasieratik galdezka.

Galderaz beterik nago,
entzungo al didazu?
ez naiz ni,
zu baizik,
mundu argi eta ilun honetan
bakarrik,
zu desagertu zinenetik.

Oraina goibel
ta geroa ... zeinek daki?
behar ote zaitudala
susmagarri? ...

Ni zu hainbeste maitatu eta gero
nola ulertu,
zer espero ...

Malko beltzaren
taupadak,
Bihotz argien
malkoak,
taupada baten malkoa.

Melodi horren sinfonian
lokartzen dut
tanten gazien artean

Bihotzaren itxaropena,
oraindik bizirik dagoena,
zuregana hurbiltzeko
irrikaz ari direnak.

norantz begiratu? non aurkitu zaitut?
saiakeren nekea
neke bakoitzaren saiakera,
bihotz nekatuaren bihotza.

Ez du axolik,
beldurrez jantzia nabil,
denboran zehar lokarturik.

Bidearen ertzean
ez dago elurrik,
epelaren hotza,
hotzaren elurra baizik.

Itxi ditzagun begiak,
iluntasun zorionaren hatsak
gure bi arima lausotzen duen bitartean
horretan...
zu ta ni
...ni ta zu
gauak besarkatzen duen tokiraino
eraman nazazu

Nor naiz orain?
bukaeratik hasita,
zergatik ni?
hasieratik galdezka.

...
Araitz Eguren Andonegi
12 urte
La Salle ikastetxea
...





Goizeder

Aste bat pasa da dagoeneko aita hil zenetik. Duela bi urte diagnostikatu zioten gaixotasun sendagaitz hura eta elkarrekin ahalik eta alaien pasatzen saiatu ginen hain zehatz kontatuak geneuzkan egunak.

Seme bakarra naizenez, eta amak duela asko utzi gintuenez, gurasoena izandako etxea nirea bihurtu da eta bertan bizitzea erabaki dut, hau da, Argentina utzi eta Donostiara itzultzea. Mudantza lanetan nabil gelditu gabe, apartamentu nazkagarri eta zikin honetatik lehenbailehen alde egin nahi dut eta.

Lehengo egunean, traste guztiak kaxetan sartzen ari nintzela, orain dela hogei bat urteko argazkiak topatu nituen zapata-kutxa zaharkitu batean.

Aitaren gaixotasuna zela-eta, erabat ahaztua neukan Goizeder eta kontu hark ekartzen zizkidan oroitzapen mingarri horiek. Baina, berriro ere, miresle batek bezala (horixe bainintzen) ezkutuan ateratzen nizkion argazkiak esku artean izatean, hain bereziak ziren une haiek gogora etortzen zitzaizkidan berriz ere.

* * * * *

Garai hartan gazte lotsati eta ameslaria nintzen. Ez nuen lagunik, bakarrik egotea gustatzen zitzaidan; edozeri begira, isilpean dena goitik behera aztertzen, baita xehetasun txikienak ere. Nire argazki-kamerarekin ibiltzen nintzen gustura, paisaiak, herriak, kaleak, olatuak, zeruak, une errepikaezinak betirako paperean harrapatzen.

Marraztea ere gustuko nuen, txikitan izan nuen arteko irakasleak esango lukeen bezala, nire barrena ateratzeko modu baketsua eta atsegina zen. Baina Goizeder ezagutu baino lehenagoko egunetan ez nuen inspirazio txikienik ere. Udako gau luze hartan ere ez.

Bero handia zegoen, haize zakarrak leihoa gogor astindu eta hainbeste atsegin nuen isiltasuna desagerrarazi zuen. Arroken aurka indartsu jotzen zuten olatuen orroak eta zeru oskarbi hartako ilargi boteretsuaren inguruan dizdizka zebiltzan izarrek erakarri egin ninduten. Leihora gerturatu nintzen, askotan egin ohi nuen bezalaxe, gau luzeak igarotzen nituen ilargiari begira, ametsetan, irudi eta soinu irrealak imajinatzen, baina gau hartan ikusitakoa ez zen nire irudimenak sortutakoa izan.

Pasealekuko amaieran emakume bat zegoen. *"Emakume bat gaueko ordu hauetan hemen? bakar-bakarrik? Itsasoari begira, iluntasun sakonean galduta, burumakur. Zer ariko da pentsatzen? Triste dagoela dirudi. Nire antza du, biok bakardadea, lasaitasuna eta isiltasuna dugu maite. Gauza gehiegi idealizatzen ditudala dio amak baina... Horrelako neska baten bila nenbilen!"* Baina beranduegi zen kalera jaitsi nintzenerako, ez zegoen bere arrastorik. Bere bila hasi nintzen hiriko kaleetan barrena, baita zikin, ilun eta estuenetan ere, eguna argitu arte, baina alferrik.

Behin eta berriro galdetzen nion neure buruari nolakoa izango zen, ea nolakoak izango ziren bere begiak, bere begirada, ahotsa, izaera, eskuak,... Itzal bat besterik ez nuelako gogoan, ez nuen argazkirik egiteko aukerarik izan, lortu izan banu edozein unetan alboan izango banu bezala sentituko nintzateke, berarekin nengoela imajinatu ahal izango nuke. Ez neuzkan nire maitea marrazteko nahikoa orri. Behin bakarrik ikusi arren, bere aurpegia ez ezagutu arren, gauak eta egunak, koadernoak eta koadernoak betetzen pasatzen nituen, nire maitea idealizatuz. Maitemintzen hasi nintzela ohartu nintzen, ezin nuen burutik kendu, berarekin egon nahi nuen, edozer egingo nukeen berriro ikusteagatik, bere irribarrea ikusteagatik.

Ama kezkatzen hasia zen ordurako. *"Gaur ere berdin, egunero bezala afaria ukitu ere ez duk egin. Hortxe hago hire munduan galdua, hitzik egin gabe, auskalo zer ariko haizen pentsatzen. Ez diat konprenitzen zer arraio duan motel."*

Afaria probatu ere egin gabe nire gelara igotzen nintzen. Bi aste pasa ziren nire maitea ikusi nuenetik, bi aste gauero-gauero alferrik leihotik begiratzen nuela, bi aste emakume harenganako maitasuna handitzen zihoala, bi aste momentu ezin hobeak imajinatzen nituela bere konpainian.

Hau da atera nion lehen argazkia egun polita zenez lanetik etxerako buelta Kontxako hondartzan barrena tipi-tapa egitea erabaki nuenekoa. Ikusi eta berehala ezagutu nuen, hankak gurutzaturik zituela ur izkinean eserita zegoen, haize goxo eta leunak ile luzea mugiarazten ziolarik.

Begirada tristea ortzi puntu zehatz batean zuen, bakardade isilean murgilduta, beretzat ulergaitzak ziren ideiak argitu nahian egongo balitz bezala, bere buruari inoiz erantzun ezingo zizkion galdera berberak behin eta berriro errepikatzen. Bere barnean kontatu ezineko sekretu bizi eta sakon bat gordeko balu bezala.

Itsas ertzera gehiegi ez gerturatzen ahalegindu nintzen, ahalik eta isilen bera ohartu ez zedin, baina atzean utzi nuenean burua mugitu eta bere begirada nire bizkarrean nabaritu nuen.

Garai hartan alde zaharreko liburu dendatxo batean egiten nuen lan, nahiz eta oso handia ez izan, milaka liburu zeuden lurretik sabairainoko egurrezko apaletan, nahiko ondo kontrolatua nuen kaos batean, hainbestetan garbitu behar izaten nuen hauts madarikatuaz estalirik. Dendak usain berezia zuen, liburu berrien eta zaharren arteko nahasketaren antzekoa, eta izkina batean zegoen karakol-eskailerak biltegi bihurtutako ganbarara eramaten zuen. Nire idazmahaia atetik urrun samar zegoen, baina haren pare-parean, beraz, aspertzen nintzen bakoitzean jendearen joan-etorriei begira pasatzen nituen orduak. Astelehenero bezala kamioia etorri zen, lanpetuta nenbilen dena bere lekuan jartzen eta diru kontuak argitzen. Oso kontzentratua nengoen eginbehar haietan baina ate gaineko egurrezko kanpaitxoen ondoren aditu nuen ahots liluragarri hura entzundakoan filmetako kamara motel batek grabatuko bagintu bezalaxe sentitu nintzen.

Bera zen, ez nuen zalantzarik, Kontxako hondartzan bakarrik zegoen neska berbera zen, irribarretsu sartu zen. Aspaldiko poesia liburu baten bila etorri zen baina azkenean gure gauzez hitz egiten amaitu genuen; idazle honen liburuak oso interesgarriak dira; hau asko gustatzen zait, beste hau batere ez; halako musika entzuten dut, honen kontzertuetara joaten naiz; hau ikasten ari naiz, eta bla, bla, bla.

Liburua berriro aipatu zidanean, ez nekien zer erantzun, ezin nion liburua ez genuela esan eta alde egiten utzi; mirari hura aprobetxatu beharra nuen. Neska ezagutzeko nire aukera zen, liburua lortuko niola zin egin nion, baina horren truke kafe bat hartzera gonbidatu beharko ninduela.

Baina zalantzarik gabe, hau da nire argazkirik gustukoena, Goizederren benetako kezkak, barne sentimenduak eta arazoak ezagutu nituen egunekoa da, elkarrekin egonak ginen aurrerago, baina sekulan ez zidan egun hartan kontatutakoa aitortu. Ikusi nuen azkeneko eguna da.

Txillidaren Haizearen Orrazietan gaude berriro ere, zeru lainotua haizeak korapilatutako hodei grisekin dago apaindua eta Goizederren atzeko aldean Santa Klara uhartea eta Urgull

mendia ageri dira, eta harrizko pasealekuaren kontra jotzerakoan olatuek altxatzen duten aparra ikus daiteke aurrean. Erdian dago bera, olatuekin jolasean, zeharo bustita, blai, irribarre handi batek apaintzen du bere aurpegia, baina gertutik begiratzean tristura azaltzen da bere begietan, eta ezkerreko begian ubeldura iluna.

Oroitzapenak sekulako tentsioa sentiarazten dit bularraldean, zainetako odola loditzen zaidala, hura galarazteko zerbait egin nezakeela pentsatzean, gertatutakoaren kulpa dena nire buruari botatzean, erruduna ni nintzela sinestean.

Arratsalde hartan aitortu zidan mutilarena. Begian zer zuen galdetu nion; isilunea, ez zekien zer erantzun eta bere buruari negar egingo ez ziola hitz eman izan balio bezala, negarrari eusten saiatu zen arren, eztanda egin zuen.

Bere barruan denbora luze hartan gordetako kezkak azaldu zizkidan eta kontu horiek inorekin partekatzen zituen lehenbiziko aldia zela aitortu. Beldurra zen harreman zentzugabe hura jarraitzera bultzatzen zuen arrazoia, bakardadearen beldur zen, ezin zuen bere bizitza bikotekiderik gabe imajinatu.

Ez zen mutilaren oihu, irain edo mespretxuez ohartu ere egiten, ezta bere menpe zegoela ere. Ez zekien benetan maite zuen ala ez, baina hori sinestarazten saiatzen zen. Oso nahasia zegoen, batzuetan mutilak egun onak izaten zituen eta oso ondo pasatzen zuten batera; gauzak normaltasunera itzultzen ari zirela pentsatu eta aurreko dena barkatzen zion. Baina bat-batean, zergatia jakin gabe, umorea erabat aldatu eta krudela eta gaiztoa bilakatzen zen.

Harritu egin zen, inoiz ez lukeen pentsatuko ezezagun bati hori dena kontatuko liokeenik, baina dena kanporatutakoan aske sentitzea lortu zuen, elkarrizketak gauzak argitzen lagundu omen zion, itxaropen txiki bat azaldu zitzaion eta amaitu zela erabaki zuen, ahalik eta azkarren berarekin moztuko zuela.

Baina, ematen duenez, ez zen ideia ona izan. Mutila uzten zuenean hots egingo zidala hitz eman zidan, ospatzeko kafe bat hartzera gonbidatuko ninduela. Ez nuen deirik jaso. Ez biharamunean, ez hurrengo egunetan. Hasieran nitaz ahaztu zela pentsatu nuen, edo amore eman zuela eta ez zuela bikotea uztea lortu. Buruari nahiko lan eman nion, aukerarik txarrena ere otu zitzaidan begiko ubelduraz oroitzean, "Eta mutilak zerbait egin badio?" errepikatzen nion neure buruari behin eta berriz.

Urduri baino urduriago nengoen, nire logelan atzera eta aurrera ez dakit zenbat kilometro egin nituen ideia hura burutik kendu nahian, aukera hura ez zela posible nire buruari behin eta berriz errepikatuz.

Kalera atera nintzen bere auzorantz, ero baten moduan kalean aurkitzen nituen ezagun guztiei galdetu nien Goizederri buruz, zerbait gertatu ote zitzaion galdetzen nien. Inork ez zekien ezer, egunetan ez zutela ikusi esaten zidaten. Halako batean auzoko amona berritsuena dela esaten dutenarekin egin nuen topo. Hitz egiteko beharra duten amona horietako bat zen, urteek eta bakardadeak beraien gaztetako kontuak edozeini kontatzeko prest dauden horietako bat. Ezagutzen ez nituen eta axola ez zitzaidan kontuez etengabeko monologoa eskaini zidan bere etxerako bidean. Ondo gogoratzen bazen, egun batzuk pasa ziren Goizeder ikusi ez zuela, ziurrenik lagunen baten etxean egongo zela esan zidan eta goiz hartan bertan prestatutako gailetak eta bizkotxoa jan behar nituela, bai edo bai, esan zidan.

Nahiko astunak eta luzeak egin zitzaizkidan amonarekin igaro nituen orduak, baina errukia ematen zidan eta ez nekien handik nola alde egin. Hala ere, jaso nuen merezi nuen saria, Goizederren lagun mina nintzela esan nion, eta kanpoan zen bitartean loreak ureztatu behar nizkiola.

Berehala utzi zidan Goizederren etxeko giltza, atea beldur pixka batekin zabaldu nuen, pasillo estu, luze eta iluna oin puntetan zeharkatu nuen. Geroz eta jasangaitzagoa bilakatzen ari zen usain ustel bat sumatu nuen. Goizederren logela pasillo bukaeran zegoen, atea erdi irekia zabaldu nuen. Inoiz izan dudan burutazio txarrena izan nuen. Han zegoen Goizeder lurrean etzanda, ez zegoen zalantzarik, hilda zegoen.

HILIK AZALDU DA 22 URTEKO NESKA BAT DONOSTIAKO ALDE ZAHARREKO ETXE BATEAN

Gordeta daukat hurrengo eguneko egunkarian azaldu zen albistea. Beretzat onena izango zelakoan, hain gaizki tratatzen zuen bikotekidea uztera animatu nuen, baina ez zitzaidan sekula burutik pasa horrelako tragediarik gerta zitekeenik.

Hasieran, berekoi hutsa izan nintzela esaten nion behin eta berriz nire buruari, niretzako bakarrik nahi nuela Goizeder, bikotekidea utzi ondoren nirekin maiteminduko zelakoan eta biok elkarrekin pozik bizi izango ginelakoan.

* * * * *

Asko kostatu zitzaidan Goizederren heriotza gainditzea. Lana utzi nuen, eta lur jota, erabat gogogabeturik egoten nintzen etxezuloan sartuta. Nire bizitzarekin zer egin ez nekiela egon nintzen zenbait hilabete, aitak egoera hartan ikusita atzerriko ONG batean laguntzea proposatu zidan, horrela, behintzat probetxuzko zerbait egingo nuen. Ideia ona iruditu zitzaidan, Goizederri laguntzea lortu ez nuenez, beharbada beste norbait laguntzeko aukera izango nuelakoan. Gainera, Donostiako leku gehienek hura gogorarazten zidaten eta ondo etorriko zitzaidan beste herrialde batean bizitza berri bat hastea.

Halaxe egin nuen, orain arte Argentinan ibili naiz alde batetik bestera, gelditu gabe, eta inoiz hartu dudan erabakirik onena izan dela uste dut. Asko ikasi dut egindako bidaietan, esperientzia ezin hobeak bizi eta kultura desberdin ugari ezagutu ditut, ahal izan dudan neurrian besteei lagunduz.

Donostiara itzultzean hainbeste urtetan zapata kutxan gorderik izan ditudan oroitzapen mingarri hauek azaldu zaizkit berriz ere, baina, gaztetako bizipen latz hura gainditu dut. Etorkizunean izango ditudan goiz ederrekin amesten bizi nahi dut.

...
Sara Ayesa Ruiz
15 urte
Santo Tomas lizeoa
...

...
"Donostiako Puzzlea"
Zurriola Ikastola
Oihane Mera,
Paola Martinez
de Guereñu.
13 urte
...

Elurra

Elurraren Indarra
Leihotik begiratu eta
kalea itsaso txuri batez estalita ikusteak,
benetako poza ematen du
Zahar, gazte, ume, heldu
guztiak une horren zain.
Udazkena abendutzearen zain.
Itsaso zuriari begira,
haurtzaroko urrezko momentuak
barneratzen zaizkit
Nire gorputza bahitu nahian,
Nire gorputza umetu nahian.
Hori da elurraren indarra.

Oroitzapenen elur malutak,
emeki-emeki,
banan-banan.
Lurrean pausatzen dira.
txuriz lurra margotuz,
txuriz zuhaitzak margotuz,
txuriz oroitzapenak margotuz,
pixkanaka-pixkanaka,
etorri diren bezala,
badoaz.
Hori da elurraren indarra.

Askea
Elurra isilik erortzen den laztana da.
Kaleak, lasai eta poliki
betetzen dituena
Teilatuak, mendiak, kaleak
gaineztatu arte.

Elurra, hotza eta iluna da,
lortu ezin daitekeen objektua
Naturak bakarrik daukana.
Elurra askea da,
eta inoiz ezingo dugu harrapatu.

Garaiezina
Elurra bortitz erortzen da,
lurra estaliz,
zuhaitzen hegoak jantziz,
belardien parra estaliz,
bere bihotz hotzarekin.
Ametsezko loreetan,
parke hiletan,
eroriz
pentsamendu ezezagunak
txuriz margotuz.
Baina berak dakarren poztasunak,
Garaiezina da.

Horrela al da?
Hotzak gure bizkarrean hotzikara
pausatzen denean,
badator bera, bakarka eta astiro,
mendi handiak sortuz.
Inozente eta txintxo,
loreak eta zuhaitzak hilez.
Maite dugun guztia estaliz.
Paisai koloretsua,
kolore txuri monotonoz betez.
Udarako momentuak berarekin eramanez.
Zintzoa dirudi, baina horrela al da ?

...
Irene Alvarez Olaberria
14 urte
Zurriola ikastola
...

...
Iñigo Alvarez Aguado. *14 urte. Lauaizeta ikastola BHI. "Duela 200 urte"*
...

XXIV. Literatur Lehiaketa
Koldo Mitxelena
LOGSE Batxilergoa eta Lanbide-Heziketa
(16-18 urte)

...
Bertsoa

Ikastolako gogoetak

I
Haritz naiz eta hiru urtetatik
Daramat eskola baten
Hernaniarra izatez baina
Donostin nabil ikasten
Azken urtea dut aurtengoa
Batxilergoko bigarren "B"-n
Saiatuko naiz urte hauetako
Gogoeta bat egiten
Guraso, lagun, maisuak eta
Andereñoak aipatzen
Lagun arteko giroa ere
Ea ez zaidan ahazten
Saiatuko naiz bizi izan dudan
Guzti-guztia kontatzen
Eta barruan dudana ere
Zuei denei adierazten
Zaila badela badakit baina
Gutxinez saia gaitezen
Bertso hauexek nire gomuten
Itzala izan daitezen.

II
Gogoratzen dut ikastolako
Lehenengo egunean
Ezin sarturik ibili nintzen
Malko ta negar artean
Amak goxoki hartu ninduen
Bere besoen gainean
"Lasaitu Haritz ez negar egin
Nire begien aurrean"
Hitz horiekin lasaitu eta
Urteak joan heinean
Momentu itzelak bizitu ditut
Lagunen aldamenean
Ikastolako jolas garaian
Gola sartzen nuenean
Baita euskal dantzan denok batera
Dantzan hasi ginenean
Une horiek nahiz eta izan
Onean edo txarrean
Nik betirako gordeko ditut
Nire bihotz barrenean.

III
Gauza ugari pasatu dira
Ikastola inguruan
Atezain, maisu ta jangelako
Andereñoen munduan
Nahiz zuen lana ez den ikusten
Modu esanguratsuan
Bikain moldatzen zarete denak
Bakoitza bere esparruan
Gauza bakarra ezagutu dut
Nik tragedia moduan
Joxe Antonio atezainaren
Heriotza momentuan
Beti onenak joaten zaizkigu
Horren modu injustuan
Gure hizkuntzan defendatzaile
Zen horren modu sutsuan
Euskera hitzeiten ez zuenari
Zapla! Belarri onduan
Oroimen onak ditut bereak
Jasorik nire barruan.

IV
Ez nuke aipatu gabe utzi nahi
Gaur gurasoen papela
Nik lasai asko hitze(g)in dezaket
Seme ta ikasle bezela
Zuek semeoi beti onena
Ematen diguzuela
Nahiz ta batzutan pentsatzen dugun
Gure kontra zaudetela
"Ikasi ezak ez hadi izan
Alperra eta tentela
Badakik eta bestela Haritz
Suspendituko dekela"
Ta ikustean guzti guztiak
Aprobatuta daudela
Konturatzen naiz esfortzu horrek
Merezi izan duela
Nahiz badakidan igual batzutan
Gehiegi eskatzen dutela
Horrekin esan gura digute
Asko maite gaituztela.

V
Nik kirola dut gustoko eta
Hori aipatu beharko
Nire bizitzan zati delako
Ta atsegin dudalako
Gure artean genuen hori
Giro jatorra zelako
Hondartzan ere pasatakoak
Gogoan ditudalako
Lehiaketari dudan guztia
Fin eskeini niolako
Eta gustora ta ilusioz
Jokatzen genuelako
Eskertu nahi dut urte haietan
Dena eman zutelako
Entrenatzaileei bihotzetikan
Emanez eskerrik asko
Axular futbol taldearekin
Izar txiki ginelako
Momentu horien oroitzapenak
Ez zaizkit inoiz faltako.

VI
Egia esan nire bizitza
Ondo doakit gaur egun
Eskolan ondo nijoa eta
Bertan dauzkat hainbat lagun
Ahaztu gabe ikastolako
Zenbait oroitzapen kuttun
Nahiz ta ikasten makina ordu
Aurten pasatu ditugun
Oso ondo dakit gerora horrek
Zenbat lagunduko digun
Eta hautaprobak jada gugandik
Benetan gertu dauzkagun
Egoerari aurpegi onez
Erantzun diezaiogun
Ea horrela guztiok ere
Ongi ateratzen dugun
Aldez aurretik egindakoak
Buruan euki ditzagun
Ta ondo hasi dugun guztia
Ondo bukatu dezagun.
VII
Hamabost urte ikastolako
Mugatik atera barik

Bada garaia ezagutzeko
Beste eskola berririk
Irekitzeke dauden ateak
Ugari daude oraindik
Matematika ez dut gustoko
Eta letren alorretik
Ezin ba esan zenbakiekin
Oso trebea naizenik
Aholku hauek entzunak ditut
Gurasoen ahoetatik
"gustokoena egin ezazu
Beste guztian gainetik"
Nahiz ta gogoak nik badauzkadan
Hau bukatzeko jadanik
Hiru hilabete eta bagoaz
Gu Axular Lizeotik
Hurrengo urtean faltan botako
Dudala ondo dakit nik.

VIII
Etapa baten bukaera ta
Beste baten hasiera
Ume izatetik heldu izatera
Salto edo aldaera
Bizitza gorantz bideratzeko
Beharrezko eskailera
Igo dezagun, eraman gaitzan
Zabal nahi dugun atera
Urte hauexek beste ezerrekin
Ezin nintzake aldera
Baina garaia bukatu da ta
Hau da gure amaiera
Batzuk Bilbora joango zarete
Beste batzuk Madrilera
Eta Donostin gelditzeko ere
Badago nahiko aukera
Iritsi baita aldaketaren
Momentua, egoera
Baina sekula hau ez ahaztu
Axularrekoak gera.

IX
Azken urteko bidaia eta
Guztiok a ze desira
Joan nahi dugu denok batera
Oso-oso urrutira
Baina guztiek igo nahi dute
Hegazkinaren erdira
Eta bertatik ondo ikusi
Mallorkak duen dizdira
Bertan bizitu hainbat istorio
Eta hainbat tirabira
Ondo pasatuz azken finean
Zazpi egun soilik dira
Joan nahi dute itsasoa ta
Hondartza duen hirira
Joan nahi dute parranda onena
Dagon hiri nagusira
Mallorkara re Joan nahi nuke
Baina ezin det ta tira
Nahi badezue zuek etorri
Parrandan nere herrira.

...

Bertsoa

X
Ohore bat da hamabost urtez
Zuen ikasle izana
Erreztasunez heldu zarete
Nere bihotzarengana
Gogoan dauzkat nire aitonak,
Anaia, aita ta ama
Nik guztiekin ta betidanik
Izan dudan harremana
Eta nola ez, lagunak, maisu
Ta andereño andana
Eskertu nahi dut zuek nigatik
Egin duzuen lan dana
Familia da bizitzaz dena
Niri irakatsi didana
Baina kontutan hartu behar dut
Niri eskolak emana
Azken finean hori da haiei
Eskertu nahi diedana
Eskerrik asko bihotzez eta
denei muxu handi bana.

...
Haritz Otxotorena Uralde
17 urte
Axular lizeoa
...

Telefonoaz bestalde

Etsipenaren itsasoan ur gainean mantendu nahi baina ezin duten arimekin egiten dut lan, ni neu ere hondoratuko ez banintz bezala. Txikitatik nahi izan dut besteen aurpegi tristeetan irribarrea, kolorea margotu, baina ez nuen askotan lortzen; txorakeriak egin eta azaleko irribarrea baino problemaren erroa bilatu eta moztea nahi nuen, bihotzeko, sakoneko irribarrea marraztu nahi izaten nuen. Bizitza den antzerkiaren eszenatokian lagundu baino, teloiaren atzean laguntzen saiatzen nintzen. Arazoa biren artean mantentzen saiatzen nintzen. Horregatik sartu nintzen lan honetan, telefonoak ematen didan anonimatuan babesturik, kablearen luzerak emandako babesaz baliaturik deitzen duen horri nire laguntza, nire denbora, ni neu eskaini eta atzean gelditzeko baino aurrera jarraitzeko arrazoi gehiago dauzkala ikusarazteko. Hau, ordea, ez da beti gertatzen, batzuetan ez da lortzen deitzaileari behar duen laguntza ematea, inguru beltzetik askatu eta gorria, urdina, horia, morea, berdea ikustera eramatea, itxaropenaren kolorean bildu eta hegan eginaraztea.

"Pipipi, pipipi, pipipi, pipipi, pipipi, pipiPLAST.

Nazkatua nauka iratzargailuak. Amets egiteko daukagun denboraren amaiera da iratzargailua. Desio duguna edo irudikatu ahal duguna lor dezakegu lotan amestean, esna amestean ez bezala 3D irudiak baitauzkagu, ahotsa ere besteena entzuten dugu eta istorio arraroak suertatzen zaizkigu. Esna amestean, berriz, ezin da kalitate bereko irudirik, soinurik, istoriorik imajinatu, errealitateak konturatu baino lehen mozten digulako istorio harekin lotzen gaituen lokarria.

Kafea prestatu, hartu, dutxatu, jantzi eta korrika lanera. Auto pila. Geldirik. Ez aurrera, ez atzera. Tik-tak, tik-tak. Berandu nabil. Deituko dut? Ez. Badirudi mugitzen hasiko garela. Ez. Piiiiiiiiiiii. Tik-tak, tik-tak, tik-tak, tik-tak... Piiiiiiiiiiii. Pirubirubi! Pirubirubi! Pirubirubi! Bai? Nor da?... bai, Kontxi, ni naiz... ...bai, badakit berandu nabilela, barkatu... Bai, badakit ez dela lehenengoa, ezta bigarrena ere... Auto pila dago, Kontxi... Saiatuko naiz... hamar minutu?! Ez naiz hamar minutuan iritsiko... Ongi da, gero arte. Azken abisua. Beste behin berandu eta kalera. Kontxi halakoa da, ez du puntualtasunarekiko tolerantziarik, egia bada ere astean bizpahiru egunetan iristen

naizela berandu lanera. Kontxi nire nagusia da, hona ekarri ninduena. Hasieran oso leuna zen, gozoa, lasaia... baina bat-batean guztiz aldatu zen. Orain zorrotza, gogorra da, hotza. Horregatik da nagusia, telefonoz hoztasun horrekin ez hitz egiteko eta, bide batez, denoi pilak kargatu eta lan eta lan aritzeko. Piiiiiiiiiiii. Zu itsua zara ala? Ez al duzu ikusten ezin naitekeela pasa! Hau entzun beharra ere. Noski, jauntxoak ezin du bere Mercedes berriarekin bost minutuz itxaron. Joan zaitez pikutara, baboa! Piiiiiiiiiii. Isiltzeko!! Azkenean, bazen garaia. Bagoaz aurrera.

- Egun on, Kontxi!

- Kaixo, bai - erantzun hotza, jarraian zaplaztekoa- berriro ere berandu bazatoz kale gorrira bidaliko zaitut, entzun?

- Bai, bai, barkatu - arkume aurpegiaz - ez da berriro gertatuko.

- Bost aldiz esan didazu hori jada - bigarren zaplaztekoa - Segi lanera, gaur lanez gainezka baikabiltza!

Ahaztu egin zitzaion hirugarren zaplaztekoa (hitzez emandakoa) ematea. Normalean hiru ziren ematen zizkidanak lanean hasi baino lehen, baina egun hartan bi baino ez zizkidan eman. Pozik zegoelako agian? Arraroa zen (baita da ere) pozik zegoela sumatzea, irribarrea besteentzako uzten baitzuen, beti serio, beti marmarka. Kontxi. Gaixoak pena ematen zidan garai hartan, orain, berriz, ulertzen dut bere jarrera. Bi aukera dauzkazu lan hau egin eta aurrera jarraitzeko: tristura-malkoen tokian irribarreak jarri eta besteei goxotasun puntu bat ematea, edo malkoak xukatzeko begietako ateak ixtea, hoztasuna izaeran txertatuz, malkoak izoztea. Beraz, esan daiteke lan honetan aritu ondoren bi pertsona mota lortzen direla, hau da, bi motako pertsonak sortzen dituela lan honek: loreak eta hormak. Lore esatean ez naiz kalean barrena topa ditzakegun bi hankako arrosa eta krabelinez ari, ez, ez naiz neska politez ari. Lore esatean beraien fotosintesia egiteko gaitasunaz ari naiz. Loreek karbonoa 'arnastu' eta oxigenoa 'sortzen' dute. Halakoak dira lehen motako pertsonak. Hauek ingurukoen mina, nahigabea, esperantza falta 'arnastu' eta zoriontasuna, irribarrea 'sortzen' dute, besteei zoriona oparitzen diete. Horma esatean, berriz, ez naiz ari gauzek bertan errebote egin eta alde egiteaz ari (baloi bat hormara botata berriro ere atzera egingo du), ez. Zutik mantentzeari buruz ari naiz. Hormen moduan, pertsona

hauei baloian bildutako etsipena, mina, nahigabe, esperantza falta jaurtitzean, bertan jarraitzen dute zutik. Saia zaitezke berriro ere baloia paretara botatzen, baina paretak bertan jarraituko du. Saia zaitez berriro, eta bertan jarraituko du paretak. Saiatu berriro ere, bertan jarraitzen du. Zutik. Baina ez dute zertan irribarrea itzuli, pareten moduan, hasierako garbitasuna, kolorea galtzen joango dira, irribarrea galtzen joango dira, harik eta pareta gris bihurtzen diren arte, beti zutik, bai; baina inoiz ez urdin, hori, gorri, zuri, berde... ez. Beti gris.

Nire mahaira joan nintzen korrika, erabakiaz damutu eta orduan bertan kaleratuko ninduen beldur. Iritsi nintzenerako mahaia paperez josia zegoen. Alde batetik, abisu, notifikazio, ohar eta bestelakoak zeuden: ez dakit zein e-mail erantzun, hemengo gutun honi erantzun egokia eman, hango zenbaki hartara deitu... Bestetik, kasuak. Kasu pila. Denak aldi berean aztertu beharrekoak. Erregulartasunez deitzen zuten pertsonei buruzko txosten moduko horien artean zegoen J. Gaixoa. Bizitzak ez zuen ondo tratatu. Dibortzio bat, hildako seme bat, kartzelaratutako alaba. Bizitza gaiztoa dela pentsarazten dizuten horietako pertsona bat zen. Oso interesgarria, bai, baina kontuz ibili beharrekoa, txorakeriarik egin ez zezan.

- Rrrrring! Rrrrrring! Rrrrrring!

- Bai?... Aja... Bai... bai pasa noski... ...gero arte, bai.

- ... ... lasai... lehenbizi lasaitu egin behar zara, esaten didazuna ulertzeko... ...J zen. Lanetik kaleratu zutela eta aurrera egiteko indarrik ez zuela eta deika. Aterako zara aurrera... Bai, noski egoera zaila dela, baina zuk badezakezu... ...beti badiot egia delako izango da, ez duzu uste?... ez, ez da amaiera... ...baina Xabier ez da itzuliko. Ezin duzu ezer egin bera itzultzeko. Auto hark eraman zuen eta kitto...ez zuk, ez nik ezin dugu ezer egin; inork ezin du ezer egin... ...Gainera, ikusi zenuen erruduna damututa joan zitzaizula barkamen eske... ...bai, badakit barkatu zenuela, eta horrek egiten zaitu pertsona handi, barkatzen jakiteak... ... ...baina espetxean dago eta denbora luzea pasatuko du bertan... ...ez, ez du esan nahi ez duela berriro ere alkoholik edango, baina ziur nago edan ondoren ez duela erosketako karrotxoa ere gidatuko... ...eta hala lortuko duzu bera bueltatzea?... ez, ez duzu lortuko...ahaztu hori! Entzun?... Nahikoa pasa zenuen duela urtebete... ...bai badakit zaila izan zela, baina ezin duzu berriro ere

erori... ...zer pasako litzateke Liberekin? Zer egingo luke Libek zu gabe?... Zu soilik zauzka... Baina orain arte itxaron duzunarekin sei hileko bat ez da denbora luzea... ez, noski ez zarela zu gertatu zaizun guztiaren erantzule... biok dakigu ez zarela gai horretan babesteko gai... ... noski ezetz... ... zein jainko zintzok utziko luke horrelakorik gertatzen... arrazoi duzu... ... baina orain zeure buruan pentsatu behar duzu….. ahaztu Amaiaz. Berdin du berak aurrera egin izanak... ... gainera... bai... eta?...Noski barkatu ez zenuela... ez, horrek ez zaitu pertsona txar bihurtzen... berak beste bat maite zuen eta ez zizun ezer esan... ez zen ausartu... ... ez, bera izan zen koldarra, ez zu...eta?... inporta al du beste horrekin familia sortu izanak?...bere alaba ere ez zaio eta axola!... Gaiztoa da, bai... ez, ez diozu zertan horregatik zutik egoteari utzi behar... Baina garai haiek pasa ziren... Orain... entzuidazu... ... orain garrantzitsuena zu zara... ... baina zuk aurrera egingo duzu... ... nik lagunduko dizut... ... ez, badakizu ezin dudala hori egin... ... ez, ezin dut zure etxera joan... badakizu telefonoz soilik lagun dezakedala... Nahi duzu gizarte laguntzako telefono zenbakia?...ez, ez dute pobreek eta eroek bakarrik deitzen laguntza eske... gainera, zu ez zara ez eroa ez txiroa... ... Lasaitu zaitez, mesedez... hartu arnasa... ... 1... ... 2... ... 1... ... 2... ... Hor zaude?...bai, bai segi horrela... Kontrolatu zure burua... lasai egon... - telefonoa eskuaz estali eta Mikeli keinuka hasi nintzaion. Etorri. Azkar. Tori. Helbide bat da, noski. Ez al duzu ikusten? Bidal dezatela norbait hara. Azkar. Mikel! Baina ez dadila inor sartu nik esan arte, entzun? Ziur ulertu duzula?Ba azkar. Azkar! - ... ez, ezin duzu horrelakorik egin, zeini lagunduko zenioke?... noski aurkituko duzula norbait... Ez... pertsonak ez gara amodio bakarrekoak... ... zu, ni, gu, denok gara poligamo... ... Baina horri errespetua, leialtasuna deitzen zaio... ... Noski ez zaudela bakarrik... inor ez dago bakarrik mundu honetan... arazoa inguratuko zaituztenak aurkitzean dago... Bai, horietan, salduko ez zaituztenetan... Hitz egin duzu Jokinekin?... - Mikel! Bidali al duzu norbait? Bale ba, eskerrik asko - Zergatik, ba?... Zer?!... ba ahaztu beraz... ... Laguntasuna halako tontakeria bategatik amaitzen duena ez da... ... ez, ez da ez normala ez ulergarria ere... ...ez, Xabierrez ez hasi berriro ere... ... Ez... Nola ez zarela inor?... Noski garrantzitsua zarela... ...Zeinentzat?... Zuk erantzun beharko diozu galdera horri... ... - Mikel! Mikel! Mikel! Azkar! Presta dadila tipoa, seinale bat egitean sar dadila. Baina ez lehenago!- ... ... eta Libe zer? Ez al zara garrantzitsua berarentzat?... eta irtetean ez al du bere aitarekin egon nahiko?... Noski garrantzitsua zarela!... ez, ez Liberentzat bakarrik... ... Jokin?...Ziur damutua

itzuliko zaizula barkamen eske... ... Ba orduan ez du zure errespetua merezi... eta beste lagunak zer?... ezetz, ez zaudela bakarrik... - Miren! Miren! Pasadazu dei hau mugikorrera, mesedez... ... Bai, badakit debekatua dagoela, baina larri gabiltza!... Miren, mesedez!

Ordenagailua itzali gabe deia mugikorrean nuela beroki bila korrika. Hartu. Igogailura. Ez zegoen. Eskaileratara. 3... ... 2... ... 1... ... Sarrerara iritsi. Irten. Aparkalekua zeharkatu.

- Ezetz, lasai egon, ez zaudela bakarrik... ...

Autoko mandoa ez zebilen. Ez, ez zebilen. Giltza sartu. Alarma.

- Zu lasai egon... ... ... irtengo zara zulo honetatik... ... nik lagunduko dizut...

Autoan sartu. Arrankatzea lortu. Ñeeeeek. Brrrrrmmmm. Semaforo bat gorriz. Hurrengoa hori oso ilunean. Piiiiiiiiii. Piiiiiiiiiii. Mugi zaitez, baboa!

- Ez... utzi hori zegoen lekuan... ...

- Mikel! Mikel!... Bai, presta dadila... ...Orain!

Azkenean autoarekin aurrera. Radarra. Argazkia. Ia-ia bertan nengoen.

- EZ... ...

- Agur

- EZ... EZ EZAZU EGIN... ...EZ!...

- PUM!

Bukatu da. Autoa gelditu. Irten. Eta orain zer? Zer egingo dut orain? Autoan sartu eta Jren etxera.

Iritsi. Bertan, polizia, anbulantzia. Irten. Kaixo, bai... ... Esperantzaren telefonokoa naiz... Berarekin ari nintzen hizketan... ...Bai, badakit ez nuela etorri behar... Bai, mesedez... Eskerrik asko. Atea botata. Gizarte laguntzakoa, ziur. Bertan dago, Jren ondoan. Lurrean etzanda. Luze. Pistola esku batean, putzua burutik hasita zabaltzen. Begiak itxi. Altxatu. Etxetik irten. Agur, bai. Autoan sartu. Etxera joan."

- Hori da dena? Hori da aitak esan zizun guztia?

- Bai, hori izan zen eduki genuen elkarrizketa eta egun hartan gertatutakoa.

- Eskerrik asko, Iker. Eskerrik asko dena kontatzeagatik, ezer ez gordetzeagatik.

- Ezin nuen gutxiago egin.

- Ez, ez luke edozeinek egingo. Eskerrik asko.

- Zure aita gizon handia zen, gutxi ezagutu ditut berak adina balio dutenak.

- Eskerrik asko denagatik, benetan. Zorretan nago zurekin.

- Benetan diot ez dela ezer.

- Agur, Iker, eskerrik asko.

- Agur bai, Libe.

Kafetegiko mahaitik altxatu eta atetik kanpora irten zen, udazkeneko egun hartan galtzera, bere aitaren istorioaren azken lerroak idatzita utziz. Udazkena zen. Hosto ihartuak, gorriak Urumea ertzean pilatzen. Ni bertan, udazkenaren eta pertsonen arteko berdintasunetan galduta, etxera bidean.

...
Ander Lizarza Otaño
17 urte
Santo Tomas lizeoa
...

Lurrunpeko iraultza

Burua makur
meriendako hiru gaileta Mariak
beroegi dagoen kafesne urtsuan
itotzen dituela.

Ezer ez da berdin
berogailua pizten hasi zirenetik.

Erizain axolagabea
mila koloretako pilulak banatzen
eskuartean duen tramankuluaren
pantailan
agertzen den historial medikuaren
arabera.

Pantailari laztan bat
eta Mattin gajoaren irudia ageri da
patologia amaigabeen zerrendaren
alboan.
Jangelari begiratu bat eman
eta leiho alboko mahaian topatu du
pantailako argazkiarekin
bat datorren aurpegiera.

Distraneurine 0-1-1
zaharrengan
ezinegon, aztoramen eta urduritasun
egoerei
aurre egiteko tratamendua.

"Ez didazu goxoki urdinik eman
behar?"
"Gaur Trankimacin-ik ez Mattin,
hobeto zaudela esan du medikuak"

Hurrengo laztana.
Matilda eta bere Parkinson-a.

Hirugarren bat.
Pello eta atzera bueltarik gabeko
tronbosia.

Laztan, eta laztan,
Karmen,
Pili,
artritisa,
laztan,
Estebantxo,
Joxe,
altzeimerra,
laztan,
arterioesklerosia,
hipertentsio arteriala,
Euxebi,
diabetea,
osteoporosia,
laztan.

Katiluari darion kafearen lurrunak
antiojoak lausotu dizkio.
Lausoturik daude leihoak,
lausoturik oroimena,
lausoturik hitz goxoak,
lausoturik bilobaren irudia
egunero mesanotxeko
marko lakardun argazki horretan
ikusten badu ere.

Ezer ez da berdin
berogailua pizten hasi zirenetik.

Hustu da alboko ohea.
Gelakiderik gabeko
egun luze
eta gau luzeago bat
esperoan.
Ezin joandakoen hutsunea
daudenen berotasunaz
bete.

Ezer ez da berdin
berogailua pizten hasi zirenetik.

Axala ximur,
bihotza xamur,
hitza xalo,
ez baitu eta inor bere oihuez mindu
nahi.

Gure aitona-amonak
ez ditu neguetako gripeak hiltzen,
gure berogailuen hotzez
akabatzen ditugu.

II

Erdu amona,
heldu eskua
eta itzul gaitezen
ekonomikaren goxotasunera.

Egingo dugu guk biok iraultza
iragan daitezen laztanak
pantailetatik masailetara.

...
Ane Villagran Arrastoa
17 urte
Santo Tomas lizeoa
...

Donostia 2013 saria

Nire Istorioa

Istorio guztiek hasiera bat dute, nire istorioaren hasiera beste horrenbesterena bezalaxe, diru falta izan zen. Baina hori baino lehen nire bizitzaz jakin beharko zenukete. Fisikoki ez naiz "beste munduko" ezer, 1,70 neurtzen dut, eta sorbaldak nahiko zabalak ditut. Ile beltza eta sudur luzea. Izaeraz lasaia naiz, eta inor ez da kapaza niri presarik sartzeko.

Baina hori ez da inporta duena. Dagoeneko 1813. urtea zen. Soldadu izan nintzen 1808. urtetik 1812 arte. 30 urte nituela ikusita eta mutilzahartzen ari nintzela nire Donostia maitera bueltatzea erabaki nuen ea nire bizitzako maitasuna aurkitzen nuen. Baina ez zen horrela izan, horren ordez nire bizitzan bizi izan dudan abenturarik latzena bizi izan nuen.

Donostiara etorri nintzen egunean, nire anaiari, Donostiako alkate jaunari, bisita bat egin nion, ea horrela bide batez lanpostu bat eskaintzen zidan.

Gutun bat bidali ondoren bere etxean geratu ginen. Etorri zen eguna, eta bere etxeko atea jo nuen. Zerbitzari batek ireki ondoren bere langelara pasatzeko esan zidaten.

Harriturik geratu nintzen, ez nuen inoiz hain gela politik ikusi. Donostiako alkatearen gela hori nire etxea baino handiagoa zen bera bakarrikan. Koadro pare bat zituen, oso onak. Batean Fernando VII.a ageri zen, eta bestean horrenbeste zor diogun eta maite dugun ama. Haien erdian tximinia bat zegoen. Sua, jakina, pizturik zegoen eta harentzako egurra eusteko apal berezi batzuk.

Gela guztia urdinez margotua zegoen, gure hiriko itsasoa bezalaxe. Eta liburutegi txikitxo bat ere bazeukan; arretaz begiratuz gero, Liburu Santuaren eta Zuzenbideko liburu baten artean, debekaturiko liburu bat zegoen. Izena oso ondo ez badut gogoratzen ere Patxi Abarka zela uste dut, euskaraz idatzitako liburu bat!

Balkoi bat ere bazuen gela hark. Handikan ikusmen ona zuenak Santa Klara uhartea ikus zezakeen, zaharkiturik geratzen zen faroa eta guzti.

Gelako beste aldeak ez zuen batere zerikusirik. Mahai handi bat zegoen, horren gainean lan egiteko. Egurretan aditua ez banaiz ere ebanozkoa zela esango nuke. Eta jakina harekin jokoan zihoan aulki bat. Eta han gainean eserita nire anaia maitea, Joxe Mari.

- Zenbat denbora ikusi gabe!- esan zidan, nire eskua gogorki estutuz - Dagoeneko izango dituk 5 ez? Gudara joan hintzenetik. Faltan bota haut Jon.

- Nik ere bota dut berori faltan -esan nion erreberentzia bat eginez

- Zenbat aldiz esan behar diat? Anaiak gaituk, ez du inporta zein den gure lanbidea. Bakarrik gaudenean hitz egin iezadak konfiantza osoz -esan zidan haserre, beti jolasten genuen txantxa horrekin.

- Berorrek nahi badu- esan nion begi bat klikatuz- jajajaja, izan ere Alkate jaunari hika hitz egitea arraroa egiten zaidak.

Eta gure arteko diskusioari amaiera emateko isiltzeko esan zidan, buruan kolpetxo bat emanez.

- Zertara etorri haiz?- Galdetu zidan zuzen-zuzen, izaten zituen presekin kortesia alde batera utzi behar izaten zuen.

- Nire diru guztia agortu egin zaidak - ikustean ze aurpegirekin begiratzen zidan, azkar asko esan nion- Ez, ez, ez duk hik uste duana, ez nator eskale moduan, lan eske nator.

- Ez diat, ba, zorte askorik izan; azkenaldi honetan gobernu zentralak ez digu ia dirurik ematen, eta jendea kalera botatzen ari gaituk...

- Aaaa- esan nuen, nire dezepzioa disimulatu ezinik- Ba orduan...

- Jajajajaja, txantxa duk! Nola ez diat ba nire anaia maitea kontratatuko? Ea ba itxaron ezak hemen oraintxe nator eta.

Eta beste ezer esan gabe joan egin zen. Eta hantxe geratu nintzen guztiz harrituriik. Beste zereginik ez nuenez, liburutegian begirada bat botatzera joan nintzen ea zer aurkitzen nuen. Begiratzen ari nintzela, lehen aipaturiko liburu zentsuratuak deitu zidan atentzioa, eta ez, ez zen Patxi Abarka deitzen, Peru Abarka baizik. Begirada azkar bat bota ondoren, liburu polita iruditu zitzaidan, euskaldunen zintzotasuna defenditzen duena. Horretan ari nintzela Joxe Mari agertu zen:

- Liburu polita ezta? Ez dakit zergatik ezin daitekeen argitaratu. Pena bat da, ea konstituzio berriarekin argitara dezaketen.

- Zerbait lortu al duk?- galdetu nion lanbide baten irrikatan.

- Bai, lortu diat. Hire aspaldiko lanbidearekin zerikusia dik. Donostiako zerbitzu sekretuko agente bat izan nahi al duk?

Guztiz harrituta geratu nintzen eskaintza horrekin, izan ere, kale garbitzailea, norbaiten laguntzaile edo ezer ez eskaintzea espero nuen. Eta horrez gainera, noiztik zuen Donostiak zerbitzu sekretua? Ez nuen dudarik izan huraxe bera galdetzeko:

- Nola ez? Jakina nahi dudala, baina noiztikan du Donostiak zerbitzu sekretua?-esan nuen aho zabalik.

- 1760tik, Carlos III Espainiako tronura igo zenean, hiri guztiek zerbitzu sekretu bat izatea agintzea izan zen bere erreformetako lehenetarikoa.

- Eta zergatik ez gaude ba guztiok jakinaren gainean?

- Antza denez erabaki hura ez zen publikoa egin.-esan zidan lasai asko- Lanpostua nahi duk ala ez?

- Jakina nahi dudala lanpostua, ohore handia da hori niretzat.

- Ongi da ba bihar sartzen gaituk uztailean, abuztuan hasiko haiz, konforme?

- Eskerrik asko Joxe Mari.-eta eskua eman nion

- Lasai, ez duk ezer.

Pasa ziren egunak, nik nahi nuena baino askozaz mantsoago, eta galdera asko nituen buruan. Ondo moldatuko al naiz lanean? Zein izango da nire nagusia?

Egunero joaten nintzen paseo bat ematera nire hasierako helburuarekin: emazte bat bilatzea. Baina denborarekin konturatu nintzen ezinezkoa zela, eta mutilzahartuta biziko nintzela onartu behar izan nuen.

Iritsi zen nire lehenengo eguna agente bezala, urduri nengoela esatea gutxi zen. Iritsi nintzen Udaletxera, eta nik uste nuen bezalaxe nire anaia guztiz ahaztua zen nitaz. Harrerara joan nintzen, eta bertan nire izena eman nuen esanez lanpostu bat nuelakoan.

- Baina zertan egiten duzu lan?

- Nahiko nuke, baina ezin dizut esan -esaten nion nire irribarre onena erakutsiz

Normala denez oso arraro begiratzen ninduten, eta nahiko hitz egin ondoren, Alkate Jaunarekin hitz egitera joango zela esan zidan.

Hiru minutu ez ziren pasa nire anaia xelebrea barrezka agertu baino lehen.

- Ai ama, Jon! Hitaz ahaztu egin naiz!! Jajajaja, jakin nahiko nuke ea non dudan burua. Etor hadi, hire nagusiarengana eramango haut eta.

Eta hantxe joan nintzen bere atzetik lotsa ezin handiago batekin, jende guztia guri begira baitzegoen. "Diplomazia zerbitzuak" jartzen zuen ate batetik pasa ginen, eta hantxe zegoen hemendik aurrera nire buruzagi izango zena nire zain.

- Hemen hago, Ander! Hau duk nire anaia Jon, hemendik aurrera hire langilea izango duk.- esan zuen nire anaiak beti bezain alai- Beno, nik joan beharra daukat, gero arte.

Bakarrik geratu ginenean aurpegia guztiz aldatu zitzaion Anderri, nazka aurpegi batekin begiratu zidan.

- Hiretzat Etxeberria jauna nauk. Eta ez zaidak batere inporta hire anaia alkate jauna izatea. Hemen denok bezala egin beharko duk lan, ulertu?

- Bai, bai nola ez, hemen besteok bezalakoa naiz.

- Oso ongi, hori entzun nahi nian. Hiretzat lan bat dut. Frantsesen zurrumurru batez ohartu gaituk. Baina ez dakigu zer den, dakigun bakarra Donostiarekin zerikusia duela da. Ez ezak hemen denbora gehiagorik galdu eta joan hadi zer den jakitera.

- Ongi da- esan nuen esertzen nintzen bitartean

- Baina zer demontretan ari haiz? Joan hadi orain!

- Bale, bale -esan nuen, eta ia korrika atera nintzen.

Ez nekien zer egin. Ez naiz inoiz horrelako egoera batean egon. Baina uste nuen hoberena Frantziako Armadan sartzea izango zela.

Proba gogorrak egin nituen. Eta guztiz zailena desertore bat nintzela demostratzea izan zen, baina azkenean sinetsi zuten beraien alde nengoela: beraien konfiantza irabazi nuen. Ez zitzaidan gehiegi kostatu, 25 egunetan dagoeneko denak fidatzen ziren nitaz.

Udara bukatzear zegoen, abuztuari 6 egun bakarrik geratzen zitzaizkion. Nire armadako nagusiaren bulegora deitu zidaten, Pierre zen bere izena.

- Egun on jauna zer nahi duzu?- galdetu nion, ea behingoz Donostiako sekretua argitzen zidan.

- Dagoeneko irabazi duzu gure konfiantza, eta zure antzinako hiri zatar horrentzat plan batzuk ditugu,- barrutikan saltoka hasteko gogoak banituen ere, kanpotikan ez zitzaidan aurpegia aldatu.- gure errespetua irabazteaz gain, Parisen etxe bat eta, hogei milioi pezeta emango dizkizugu ongi egiten baduzu gure mandatua. Eta ez bada horrela...-behatz lodia lepotik pasa zuen gauzak garbi utziz.

- Jakina egingo dudala, nortzat hartu nauzu?- onartu nahi ez badut ere, momentu horretan oso tentatua sentitu nintzen eskaintzen zidaten tratua betetzeko.

- Donostia erre behar duzu.

Handik aurrera oso nahasiak ditut oroitzapenak. Zerbait esan nion agurtzeko kortesia manten zedin eta egingo nuela. Baina memento hartan ez nekien zer egin.

Kanpamenduko nire literara joan nintzenean pentsatzen hasi nintzen. Merezi al du horrenbeste maite dudan herriari su emateak? Alde batetik bizitza osoan biziko nintzateke errege bat bezala. Baina hori guztia ez litzateke dohainik izango. Nire ohore guztia, lagun guztiak, familia guztia galtzearren egingo nuke.

Inoiz izan dudan gau luzeenetariko bat izan zen. Burukiari ez nizkion sekula horrenbeste buelta eman. Esku batean nire ohorea, nire izen garbia, maite dudan guztia nuen; baina beste eskuan lasaitasuna, bizitza osorako segurtasuna, izan ere, eskaini zidaten diru pila hura xahutzeko denborarik ez nuen izango nire bizitza guztian.

Baina denbora, gizakiok ezin dezakegu kontrolatu, eta loak hartu ez ninduen bezalaxe, denbora pasatzen joan zen, eta ni ohartzerako gauzak argi nituen. Ez nuen egingo. Jakina ezetz! Nola erreko dut nire hiri maitea?

Gauzak horren garbi edukita, kanpamendutik ateratzen saiatu nintzen. Goizeko seiak ziren, dena ilun-ilun zegoen. Inor agerian ez zebilenez, konfiantzaz hasi nintzen aurreruntz joaten, ateratzea lortzen banuen, libre izango nintzen betirako. Zaldi bat ikusi nuen; ehun metrotara zegoen. Han ikusi nuen nire askatasunaren aukera.

Isilik eta pixkanaka gerturatzen hasi nintzen. Laurogei metro. Geroz eta urduriago nengoen, izerditan blai. Hirurogei metro. Kras! Makila bat zapaldu nuen.

- Norbait al dabil hor?- esan zuen goardian zegoen soldaduak.

...

Ipuina

Geldi-geldirik geratu nintzen. Niregana gerturatzen hasi zen. Ikusi egin ninduen. Bizitza horretan joango balitzait bezalaxe korrikan nenbilen, zaldia hogeita hamar metrora zegoen.

- Desertorea! Desertorea!- zebilen builaka frantsesa, inguruko guztiak esnatuz.

Hamar metro eskas. Azkeneko ahalegina gelditzen zitzaidan. Danba! Eskopeta tiroaren soinua, eta ez zen nigandik urrun ibili. Bost metro. Argiak pizturik zeuden, mundu guztiak ikus nindukeen. Metro erdira zegoen zaldia dagoeneko.

Lortu nuen! Iritsi nintzen zaldiraino. Zaldi gainera salto egiten hasi nintzen. Gogoratzen dudan azkeneko gauza, ukabil bat nire aurpegirantz zihoala da.

- Orduz geroztikan kartzelan bizi izan naiz. Eta hi haiz nirekin hitz egitera hurbiltzen den goardia bakarra.

- Gizajoa... Nik ezin diat ezer egin. Gehienez konbertsazio pixka bat eman besterik ezin dezaket egin.

- Hori nahikoa duk. Eskerrik asko.

Eta berdin-berdin jarraituko du nire bizitzak. Ala ez? Auskalo: zeinek jakin? Garbi ateratzen dudan gauza bakarra, nire bizitza ondo bizi izanaren aukera joaten uztea da. Ez ezazue nire arazo berbera izan, eta bost minutu, bost urte edo bost mende badituzue ere, disfrutatzen saiatu.

...
Xabier Goicoechea Ibarbia
15 urte
Santo Tomas lizeoa
...

...

Eskerrik asko

...

Eskerrik asko

- Aiete Ikastetxea
- Aieteko Gaztelekua
- Aieteko Haurtxokoa
- Aitor Ikastola
- Altza BHI
- Altza-Herri Ikastetxea
- Amara Berri Herri Ikastetxea
- Amarako Haurtxokoa
- Amassorrain Ikastola
- Antigua Luberri BHI
- Arantzazuko Ama Ikastola
- Artefaktu Arte Tailerra
- Arteko Tailerra
- Atzegi
- Axular Lizeoa
- Bidebieta BHI
- Bidebietako Haurtxokoa
- Catalina de Erauso Arte Elkartea
- Deutsche Schule (San Alberto Magno)
- Egiako Haurtxokoa
- Ekintza Ikastola
- Gautena
- Harri Berri Oleta Ikastetxea
- Herri Ametsa Ikastola
- Ibai Ikastola
- Ikasbide Ikastola
- Intxaurrondo Hegoa Ikastetxea
- Intxaurrondo Ikastola
- Intxaurrondoko Haurtxokoa
- Jakintza Ikastola
- Karmelo Ikastetxea
- Katalin Erauso Ikastetxea
- La Anunciata Ikastetxea
- La Salle Ikastetxea
- La Salle San Luis Ikastetxea
- Lauaizeta Ikastola BHI
- Mari Luz Etxaniz
- Maria Auxiliadora Ikastetxea
- Maria Reina Ikastetxea
- Margotu Juncal Aguirre
- Mariaren Bihotza Ikastola
- Martuteneko Haurtxokoa
- Mihise Tailerra
- Ntra. Sra. Aranzazu Ikastetxea
- Orixe Ikastola
- Presentacion de Maria
- San Ignacio de Loiola
- Santa Teresa Ikastetxea
- Santo Tomas Lizeoa
- Sagrado Corazón - Mundaiz Ikastetxea
- Summa Aldapeta Ikastetxea
- Txomin Enea Haurtxokoa
- Usandizaga Peñaflorida Amara BHI
- XXI Arte Akademia
- Zubiri Manteo BHI
- Zuhaizti Eskola Publikoa
- Zurriola Ikastola

1813
Bakea
El Kartasuna